

# Publizitatea

## Salda balego!

Jende jatorra franko bizi da gure auzoan. Gure teilape berean bada andre bat, negu parteko igande gehienetan salda, benetakoa, ematen diguna (ez pentsa, gero, horregatik bakarrik denik jatorra). Andreak ez daki euskaraz, eta honako modu aski bitxi honetan iragartzen digu, interfonotik, salda bila jaitsi gaitzkeela: “Hoy hay salda badago”.

JOXERRA GARZIA

**Zeinen gutxi gizendu duen  
publizitateak euskararen  
salda! Balantzea egiten hasita,  
nago ez ote dion onura baino  
kalte gehiago egin**

BESTERIK GABEKO pasadizo xeblebre bat izango da akaso, baina niri, gure auzoaren alderantzizko *abrakadabra* hori entzuten dudan aldiro, mirari txiki bat iruditzen zait. Nola liteke erdaldun bati beteago, kargatuago –eta, beraz, egokiago– gertatzea *salda badago* haren erdal ordaina baino?

Galdera erretorikoak dira horiek, hor ez baitago misteriorik. Erabilerak ematen die indarra esapideei, eta, hizkuntza alorrean ere, gauzak ondo egiteak emaitza onak izaten ditu. Gurean, gauzak ondo egitea zera da: euskara benetan axola diguten helburuak lortzeko erabiltzea, eta ez balizko kuota sinboliko bat betetzeko soilik. Tabernari askok eta denek modu berean jarri izan ez balute ohar hori, akabo gure auzoaren euskarazko salda.

Tamalez, gutxi dira horrelako adibideak, eta euskarazko hedabideek badute horretan erantzukizunik. “Salda badago” bezalako esapideak sortu eta finkatzeko ezin hobea da, esaterako, publikizitatea, eta abantaila nabarmenak ditu hedabideetako beste generoekiko (errepikakorra, gazteen gustukoa...).

Hala ere, zeinen gutxi gizendu duen publikizitateak euskararen salda! Balantzea egiten hasita, nago ez ote dion onura baino kalte gehiago egin. Kalte guztiak ez dira berdin larriak. Larritasunik gutxien, nire ustez, testu nabarmen okerreko iragarkiek dute (*Drogarik gabe atsedenik ez* eta horrelakoek).

Larritasunean kokka bat gorago, gramatikalki zuzenak izanik ere euskal senari iseka egiten diotenak daude, oraintsuko Kaiku esnearen kaikukeriaren gisakoak; baina horretaz aski hitz egin da hedabideetan, eta nik hauxe baizik ez diot erantsiko: bezeroak kaikutzat hartzen dutenek euskararekiko ezjakintasuna erakusten dutela, bai, baina batez ere profesional kaxkarrak direla.

Larritasunaren goren graduan, ordea, zuzen eta jator itxura dutenak daudeke. Hortxe dago Jaurlaritzak Euskadi saltzeko hautatu duen

*claim, eslogan* edo lelo berria: *Euskadi, saboréala* / Euskadi, goza ezazu.

Ez niri eskatu gisa horretako elebitasunarekin pozteko. Irakurri ditut lelo berriaren asmatzaileen arrazoiak. Gastronomiaren eremuko aditza erabiltzeak ematen omen dio leloari bere zera. Niri, egia esan, sukalde usain eta guzti arrunt samarra iruditzen zait leloa, baina gaztelazkoak badu hori behintzat. Euskarazkoa, aldiz, hortxe dago, ez ur eta ez salda, tokatzen delako edo. Euskaraz dago, eta publikizitatea da, baina hori ez da euskarazko publikizitatea.

Auzoko tabernari jator batek salda izaten du neguan salgai. *Salda badago* txartela, berriz, hantxe dago urte osoan. Hiztun eta ziri zale aparta denez, proposatu diot txartelaren beste aldean *Salda balego!* idazteko, eta alde hori erakusteko saldarik ez denean.

Herri hau benetan normala izan dadin ere, ez da aski “normalduta dago” txartela uneoro erakustea, eta, ikusiak ikusi, nik gure tabernari jatorrari emandako aholku bera emango nieke normaldu nahi gaituztenei. ■

